



ATAZA - ARALAR

PROIEKTUAK.EUS - Gure naturagune babestuak



Lanaren nondik norakoak:

- Testuaren luzera 200 eta 250 hitz artean egongo da.
- Testuak hiru atal izan beharko ditu, paragrafotan banatuta:
 - Bertako arroka-mota nagusia (kareharria) azaldu:
 - Zer motatako arroka da (sedimentarioa, magmatikoa edo metamorfikoa)?
 - Nola eratu zen arroka hori? Txindoki mendiaren kasuan, zer nolako egitura zen? Hori [interes geologikoko 112. lekua](#)ri buruzko informazioan duzue.
 - Zer aro geologikotan sortu zen?
 - Zein dira arroka mota horren erabilera posibleak (laburtuta)?
 - Arroka mota horren argazki bat txertatu, gero ibilbide birtualean erabiltzeko.
 - Interes geologikoko 87. lekua: Arritzagako haran glaziarra. Amezketako web-orrian ere informazioa topa dezakezue (https://www.amezketa.eus/herria_ezagutu/arritzagako-glaziarra). Bilatu informazioa eta laburtu:
 - Zer da glaziar bat?
 - Zer nolako formak uzten ditu haren haranak?
 - Nola deitzen dira glaziarrek utzitako sedimentuak?
 - Interes geologikoko 120. lekua: Ataungo domoa. Ataungo turismoko orrian ere informazioa topa dezakezue (<https://www.ataunturismoa.eus/eu/ataungo-domoa>). Bilatu intereseke informazioa eta laburtu:
 - Zer da domo geologikoa?
 - Nola eratu da?

- Ziurtatu idatzitako hitz guztiak ulertzen dituzuela. Horretarako, hitz ezezagunak bilatu Interneten, eta, hala ere, ez baduzue zerbait ulertzen, galdetu irakasleari.
- Testuaren ondoren, hau gehitu behar duzue dokumentuan:
 - Ezezagunak ziren hitzen zerrenda eta hitz bakoitzaren azalpen ulergarria aldamenean.
 - Informazioa eskuratzeko erabili dituzuen web-orri guztien helbideak idatzi.
- Osatu testua taldean, eta irakasleari erakutsi lehen zuzenketa egin dezan. Egin beharreko zuzenketak egin ondoren, prestatu behin betiko testuak eta audioak grabatu.